



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK 250.000 EUROKO ISUNA JARRI DIO ARABAKO HAGINLARIEN ELKARGOARI ETA 10.000 EUROKOA HORREN LEHENDAKARIARI, LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO LEGEAREN AURKAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIAGATIK.

Zehapen horiek Elkargoko lehendakariak Arabako hedabide bati adierazpen batzuk egin ondoren ezarri dira. Bertan negatiboki balioetsi zituen hortz-klinika batzuen zerbitzuak, nahiz eta ez egiaztatu praktika txarrik, publizitate engainagarrikerik edo pazienteen osasunerako arriskurik egon denik.

Bilbo, 2016ko azaroaren 23a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) 250.000 euroko isuna jarri dio Arabako Odontologo eta Estomatologoaren Elkargoari eta 10.000 eurokoa horren lehendakariari, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako arau-hauste oso larriagatik.

Zehatutako gertakariak 2016ko martxoaren 27an hedabide batek argitaratutako elkarrizketa batean dute jatorria. Bertan, negatiboki balioetsi ziren hortz-klinika batzuek zerbitzuak emateko dituzten hainbat erak. 2016ko martxoaren 12an hortz-klinika baten salaketa jaso zen, kaltetuta sentitu baitzen adierazpen horiengatik.

Hori guztia baino lehenago, 2015eko urriaren 27an, Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK) ebazpen bat eman zuen Arabako Haginlarien Elkargoari irekitako espediente bat zehapenik gabe amaitzea onartzeko. Espediente hori Elkargoak publizitate bat egiteagatik ireki zen, non zalantzan jarri baitziren hortz-klinika batzuek emandako zerbitzuak eta "konfiantzako" haginlariengana bideratzen baitziren pazienteak. Zehapena saihestearren Elkargoak ondoko konpromisoa hartu zuen: ez zuen balioetsiko, modu publiko nahiz pribatuan, haginlariak produktu edo zerbitzuak merkaturatzeko inolako erarik (erreklamazio judizialak izan ezik, kasu zehatz batzuetan). Konpromiso horrekin



enpresa-eredu batzuetarako kalteak ekiditen saiatu zen, betiere Elkargoak egiaztatzen ez bazuen praktika txarrik, publizitate engainagarriarik edo pazienteen osasunerako arriskurik egon zenik.

Elkargoko lehendakariak hedabide batean egindako adierazpenak, LEAren ustez, profesional batzuek emandako zerbitzuen balioespen negatibo bat da, praktika txarrak eta enpresa-antolaketa zehatz bat lotzen baitira.

Haginelarien Elkargoko lehendakaria den profesional batek egindako adierazpen horiek pazienteei sinestarazten die merkataritza-eredu batzuk ez direla egokiak odontologia-zerbitzuak emateko. Halaber, profesional batzuen gaitasunari buruzko zalantzak sortarazten ditu, nahiz eta horiek haginlari gisa aritzeko Legeak ezarritako eskakizun guztiak bete.

Bete ez diren konpromisoek —horiek ez betetzeagatik ezarri dira isunak, hain zuzen— haginlariei euren lanbidera sartu eta bertan aritzea bermatzeko helburua zuten, betiere pazienteen interesak babesteko ezarri diren legezko eskakizunak betetzen badituzte.

EBAZPEN OSOA ONDOKO ESTEKAN IRAKUR DAITEKE: (ESTEKA)

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.